

## ELORRIOKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALERAKO ABIABURUAK

### 1. Sarrera

Elorrioko euskara gutxi ikertu da. Ez dira asko izan gure herriko hizkeraz arduratu diren hizkuntzalari eta adituak. Urriak dira baita ere, Elorrioko euskara –ipuin, bertso eta antzekoen bidez– jaso dituzten bildumak. Jarraian lan horietako batzuk aipatuko ditugu.

#### a) *Euskal gaien inguruko lehen saiok*

Foruen galera gertatu eta gero, Eusko Pizkundera izeneko mugimendu kulturala gertatu zen. Horren barruan kokatzen da Resurrección María de Azkue (1864-1951) euskaltzalea. Azkuek hainbat eta hainbat lan argitaratu zituen euskararen inguruan, eta Euskaltzaindiaren aurreneko lehendakaria izan zen. Elorrioko euskarari dagokionez, lan bat azpimarratuko dugu, *Flexionario Vasco*<sup>1</sup> izenekoa. Aditz bilketa horrek Elorrioko euskara ere kontuan hartzen du<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Eskuizkribu horren kopia bat Euskaltzaindiaren liburutegitik atera eta Elorrioko Udalararen Euskara Zerbitzuan gordetzen da. Aditzez gain, Elorrion bildutako esaera batzuk ere jasotzen dira (adib.: *On bila, on bila, bonbila...*).

<sup>2</sup> Azkueren beste lan batzuk ere kontuan hartzekoak dira, esaterako, *Euskalherriaren yakintza* delako liburua; bertan Elorrioko zenbait kontu aipatzen dira. Resurrección María de Azkue: *Euskalherriaren yakintza-Literatura popular del País Vasco*, 4 lib., Espasa-Calpe, Madril, 1935-1947. Hogeigarren mende hasieran ere badira beste izen aipagarri batzuk: Eugenio Larrañaga elorriarra(aurrerago hitz egingo dugu idazle horri buruz), Manuel Lekuona...

b) *Hogeigarren mende bukaerako lan filologikoak*

Hogeigarren mendearen bukaera aldera filologia lanak azkartu ziren. Hala ere, ez dira asko Elorrioko hizkeraz ari direnak. Lan monografikoei dagokienez, salbuespen modura Wim H. Jansen holandarraren *Acento y entonación en Elorrio* artikulua aipa dezakegu. Horretaz aparte, dialektologiaren edo aditzaren inguruko zenbait ikerketatan ere<sup>3</sup> agertzen zaigu Elorrioko euskara. Azkenik, aipagarriak dira argitaratu gabe dauden eta oso ezagunak ez diren ikerlan batzuk, hala nola, Garaizabal neba-arrebena edo Eusko Jaurlaritzako IRALE programaren barruan Bizkaiko eta Elorrioko euskarari buruz<sup>4</sup> egindako lana.

c) *Azken urteetako lan interesgarri batzuk*

Azken urteetan lan interesgarriak argitaratu dira Elorrioko euskarari dagokionez. Azpimarragarriena, dudarik gabe, Labayru Ikastegiaren eskutik plazaratutako *Elorrioko toponimia*<sup>5</sup>.

Aurretik ere toponimia-ikerketarik bazen arren<sup>6</sup>, Elorrioko Udalak bultzatu zuen lan hori, hiria sortu zeneko 650. urteu-

<sup>3</sup> Horietako batzuen (Bonaparte, Yrizar eta Zuazo) berri laburra hurrengo puntuan emango dugu. Badira gehiago, jakina (Iñaki Gaminderen *Aditza bizkaieraz*; Euskalerriko Atlas Etnolisguistikoa...).

<sup>4</sup> Maripaz Garaizabal Aizpurua eta Josetxo Garaizabal Aizpurua: *Elorrixon euskararen eta bika formen egoera: Elorrixon bika aditz era*, argitaratugabea, 165 orrialde; IRALE-Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntze programa delakoaren barruan egindako lana Bizkaiko eta Elorrioko euskarari buruz: 892 orrialde ditu eta lau bideo dakartza. Bi lan horien kopiak Euskaltzaindiaren liburutegian gordetzen dira, baita Labayru Ikastegiaren liburutegian ere; Garaizabal neba-arreben lanaren beste kopia bat Elorrioko Udalaren Euskara Zerbitzuan gordetzen da.

<sup>5</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Elorrioko toponimia*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2006. Liburuak gehigarri modura CD bat dakar; bertan liburuan ez datozen informazioa gehitzen da.

<sup>6</sup> Victoria Eugenia Ruiz Vicandi eta beste batzuk: «Estudio de topónimos de la Anteglesia de Garay y la villa de Elorrio, ambas dentro de la Merindad del Duranguesado», in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Donostia, 32. lib, 1-2 zk., 1976, 3-120 or. Elorriori dagokion

rrena betetzen zenean. Emaitza benetan ederra da: liburuaz eta CDaz gain, interneten kontsultagai dago; gainera, udalerrriaren mapa toponimikoa ere atondu zen.

Azkenik, Elorrioko historia jorratu duten lan batzuk gogoratu nahi ditugu<sup>7</sup>, horietan ere euskararen historia egiteko datuak ematen dira eta. Egilez egile, izen hauek dira aipagarriak: Iñigo Agirre Kerexeta –gure herriari buruzko monografia<sup>8</sup> baten eta beste zenbait artikuluren egilea–, Roman Berriozabal Azpitarte –abertzaletasunaren kronikagilea<sup>9</sup> eta Balentin Berrio-Otxoa santuari buruzko hainbat lanen idazlea<sup>10</sup>– edo Igor Basterretxea Kerexeta<sup>11</sup>. Beste izen batzuk ere ez ditugu aipatu gabe utzi nahi, hala nola, Jose Luis Arruabarrena edo Alberto Ruiz Capellan errioxarra, eliz artxiboetan aditua.

## 2. Euskara Erdi Aroan eta Aro Modernoan

Jarraian, Elorrioko euskararen historia sozialaren funtsezko ildoak jorratuko ditugu. Honakoa ez da ikerketa-lan sakona:

---

atala, Lourdes Verdes Rolak egin zuen. Magisteritza ikasketen barruan egin-dako lana da.

<sup>7</sup> Aspaldiko egileak ahaztu gabe, hala nola, Jaime Kerexeta (adib.: *Linajes y casas solariegas en Bizkaia*, Elkar, Bilbao, 1987) edo Santos de Pagadigorria (*Matrícula y padrón de los Caballeros Hijosdalgo de esta Muy Noble y Muy Leal Villa de Helorrio*, Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbo, 1965).

<sup>8</sup> Iñigo Agirre Kerexeta: *Elorrio. Herri monografiara burbilketa*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992.

<sup>9</sup> Roman Berriozabal Azpitarte: *Nacionalismo vasco en Elorrio (1894-1937)*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2007.

<sup>10</sup> Lan horien izenburuak honako hauek dira: *Valentin Berrio-Otxoa. Euskerazko gurunak, Proceso de beatificación de Valentin Berrio-Otxoa (1862-1906)*, Agur Balentin! *Balentin Berrio-Otxoa santuaren omenez jarritako bertso- eta olerki-bilduma* eta *Neure amatxo maitia: euskerazko gutunak. Balentin Berrio-Otxoa*.

<sup>11</sup> Beste batzuek gain, hiru lan hauek aipa daitezke: *Hierro y palacios. Elorrio-Sevilla: mercaderes elorrianos en Sevilla durante los siglos XVI y XVII; Recopilación de artículos históricos sobre Elorrio. Programas de fiestas 1934-2004* eta *La sociedad elorriana del siglo XVII: ejemplos de vida cotidiana en una villa moderna del Duranguesado*.

gaiari buruz dauden datu sakabanatuak bildu eta gidoi hone-  
tan jaso nahi izan ditugu, arlo honetan lehen pausoak emate-  
ko eta gerora landu ahal izateko.

Abiapuntu moduan adieraziko dugu, nola ez, euskara beti-  
danik hitz egin dela Elorrion. Ahoz, hizkuntza nagusia izaten  
jarraitu du gaur egunera arte. Idatziz, berriz, beste hizkuntza  
batzuk erabili izan dira aspalditik: lehenengo latina eta gero  
gatzelania. Horretara, historian zehar hizkuntza bakoitzak bere  
eremua izan du, eta euskara ia-ia idatziaren eta erabilera kul-  
tuen esparrutik kanpo geratu da.

Orduan, ez dago azken mendeetako euskarari buruzko ida-  
tzizko lekukotzarik? Zorionez, bai. Euskara idatzirako erabili ez  
arren, beste hizkuntza batzuetan idatzitako inskripzioetan eta  
dokumentuetan agertu izan da; nagusiki, toponimoak, antro-  
ponimoak, hitzak eta, batzuetan, testu laburrak. Aro Moder-  
noan euskara hutsean idatzitako testu laburrak ere aurkituko  
ditugu –funtsean, bertsoak–, aurrerago adieraziko dugunez.

Diglosia egoera horretan murgilduta, euskararen egoera  
okertu egin zen XX. mendean. Eta, gainera, hori guztia aldatu  
zitekeenean, frankismoa iritsi zen, eta horrek euskararentzat  
beste atzerapauso nabarmen bat eragin zuen. Kanpotik jende  
ez-euskalduna iritsi zen, euskarak eskoletatik kanpo egoten  
jarraitu zuen, eta botere publikoetako politikek ez zuten  
egoera hori kontuan hartu.

Une horretara arte iritsiko da gure kronika; hau da, historia  
labur honetan ez dugu azken urteei buruz hitz egingo. Azken  
urteotan, zorionez, egoera goitik behera aldatu da eta euska-  
rak bide eta perspektiba berriak jorratu ditu; hala ere, erronka  
berriak ere baditu.

## **2.1 *Leben aztarna idatziak***

Elorrio harriaren herria dela esan ohi da<sup>12</sup>. Eta, hortxe, ha-  
rrian, hasiko da gure ibilbide historiko laburra. Harrian egin-

<sup>12</sup> Iñigo Agirre Kerexetak honela zioen Udalaren eskariz idatzitako testu

dako inskripziorik zaharrenak eta ezagunenak, Argiñetako hilobietakoak, Erdi Arokoak dira eta latinez daude. Geroago, Aro Modernoan, badira harrian –baita zurean<sup>13</sup>– idatzitako hainbat eta hainbat lekukotza gure udalerriko eraikin pribatuetan (baserrietan, kaleko etxeetan<sup>14</sup> eta jauregietan<sup>15</sup>), eraikin publikoetako fatxadetan (hala nola udaletxean) eta baita eraikin erlijiosoetan ere (elizetan<sup>16</sup>, ermitetan<sup>17</sup>, hilarrietan eta gurutzeetan<sup>18</sup>).

a) *Goi Erdi Aroa: Argiñetako harrizko hilobiak*

Argiñetako nekropoliko hilobietan Elorrioko idatzirik zaharrena dago. Horren inguruan honakoa diote: «Garai horretan ez dago dokumentazio asko Euskal Herrian, oro har, eta, are

batean: «Zer da Elorrio? Elorrio harria da. Alde guztietatik, harria...» (2009an argitaratutako udal gida batetik hartua).

<sup>13</sup> Miotako Altzerreka baserrian, teilatu-hegalaren habe nagusian hau irakur daiteke: «Antonio de Alzerreca. Año MD» (Jaime de Kerexeta: *Linajes y casas solariegas de Elorrio*, Elkar, Bilbo, 1987, 31. or.).

<sup>14</sup> Dona Gil Abad: *Elorrio: uriaren Erdi Aroko hirigintza*, Elorrioko Udala, Elorrio, 1997.

<sup>15</sup> Ana Isabel Leis Álava: «Arquitectura residencial culta en la villa de Elorrio», in *Ondare*, 24. zk., Donostia, 2005, 57-82 or. Hona hemen Elorrioko jauregietan dauden inskripzioen adibide pare bat: a) Larreategui jauregian karaktere gotikoekin idatzitako inskripzioan hau esaten da: «En el año 1524, día domingo, y de mayo 8, por la vuelta de la Pascua, apaciguó lo esceso Juan Gomez y Pare»; b) Aldapebeitia jauregian: «Esta casa izo el Capitan Don Antonio de Beitia. Año 1694» (Jaime de Kerexeta: *Linajes y casas solariegas de Elorrio*, Elkar, Bilbo, 1987, 126. or. eta 29. or.).

<sup>16</sup> Igor Basterretxea Kerexeta: *Basilica de la Purísima Concepción de Elorrio. Recopilación de datos históricos y anecdóticos*, DYCA, Bilbo, 1997.

<sup>17</sup> Gurutzi Arregi Azpeitia: *Ermitas de Bizkaia*, 3. liburukia, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1997, 109-154. orr.

<sup>18</sup> Adibide moduan, harrizko gurutzea dago Gazeta auzoan; inskripzio hau dakar: «Aquí murió don Agustín de Barrutieta el día 31 de julio de año 1788» (ikusi baita ere, Xabier Barrutieta Azkarraga-Uriar: *La Cofradía de hijosdalgos de Nuestra Señora Santa María de Gaceta en Elorrio (Bizkaia). Asistencia, devoción y solidaridad vecinal (siglos XVII-XX) / Gazeta auzoko Andra Mariaren aitonen semeen Kofradia Elorrión (Bizkaia): laguntza, debozioa eta auzo elkartasuna (XVII.-XX. mendeak)*, autoedizioa, 2014, 61. or.

gutxiago, mendebaldean, ez lehen eskukorik ez eta bigarren eskuko literariorik (ezta kanpoko iturriek lurralde honi buruz egindakorik). Hortik haren garrantzia<sup>19</sup>. Zehatz esanda, gaur egun bi hilobitan ikus ditzakegu inskripzio laburrak, eta latinez idatzita daude<sup>20</sup>. Beraz, euskara aspalditik inguruko hizkuntzekin harremanetan izan da.

b) *Behe Erdi Aroa: paperezko dokumentazioa*

Saso horretan badira euskararen aztarnak erdarazko testu idatzietan. Adibide modura, *Colección documental del archivo municipal de Elorrio (1013-1519)*<sup>21</sup> liburua har daiteke. Lan honetan XI. mendeko latinezko testu bat dago jasota, eta gainerakoak gaztelaniazkoak dira (bat XIV. mendekoa, 20 idatzi XV. mendekoak eta 22 dokumentu XVI. mendearen hasierakoak, Aro Modernoaren mugan).

Bildumako lehenengo testua, *Monasteriobarriaren emanaldia* izenekoa, XI. mendearen erdialdekoa da, baina testu horren XVI. mendeko kopiak gordetzen dira. Beraz, testuaren jatorrizko data zalantzazkoa da, baina «badirudi, aldaketekin, testuak baduela jatorrizko eta egiazko oinarri eta zatia»<sup>22</sup>. Testu horretan izen eta toponimo interesgarriak

<sup>19</sup> Euskaraz idatzitako lan hau erabili dugu: Amanda Ruiz Fernández eta Jaione Agirre García: *Euskal Herriko Erdi Aroaren historiako dokumentu idatzi eta grafikoaren iruzki-ereduak*, UEU, Bilbo, 2006.

<sup>20</sup> Lehen aipatutako obran inskripzioen euskarazko itzulpenik luzeena agertzen da: «Jainkoaren izenean Momo-k bizirik zela Aroko 921ean (88. urtea) egin ninduen, hemen datza lo» (Amanda Ruiz Fernández eta Jaione Agirre García: *Ibidem*, 52. or.). Bertan esaten denez, «ondoriozta dezakegu kultura kristaua iritsia zela Euskal Herriko eremu hauetara mende haietarako, sarkofago honek erlijio horri dagokion hizkuntza eta erromatar jatorriko datatze-sistema erabiltzen baititu» (Amanda Ruiz Fernández eta Jaione Agirre García: *Ibidem*, 63. or.).

<sup>21</sup> Concepción Hidalgo de Cisneros Amestoy, Elena Largacha Rubio, Araceli Lorente Ruigomez eta Adela Martínez Lahidalga: *Colección Documental del Archivo Municipal de Elorrio*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1988.

<sup>22</sup> Amanda Ruiz Fernández eta Jaione Agirre García: *Ibidem*, 78. or.

agertzen dira, hala nola: *Olabeeçahar, Marcoçubi, Çumelhegi, Memaiia eta Harhegi*<sup>23</sup>.

Bildumaren beste dokumentuei dagokienez, euskarazko izen eta toponimoak ugari dira. Gainera, euskaraz ohikoak diren hitz batzuk ere agertzen dira. Adibide bat ipintzearren, izen, leku eta hitz arruntak (*egurza*<sup>24</sup>) jasotzen dituen pasarte bat aipatuko dugu: *«puede aver treynta e çinco annos, poco mas o menos tienpo, que en Çumelegui dieron la begurça nueva a los vecinos de Ascarraga, e a la sazon vido este testigo andar Juan Yvanes de Gastia de Murguetio, vno de los confrades de la confradia de Miota, al poner de los mojones de la dicha begurça nueva»*<sup>25</sup>.

c) *Aro Modernoa: euskaraz idatzitako lehen inskripzioa*

Harrian idatzitakoa izango da ziurrenik Elorrioren dugun euskarazko lehenengo esaldia ere. Hain zuzen ere, Urkizuarango San Antonio ermitan aurki daiteke. Albo batean limosna batzeko prestatuta dagoen harri bat dago eta bertan santuaren aldeko limosna eskatzen da, hitz hauekin: «Antoninoen arguitaco»<sup>26</sup>. Ermita hori 1575ean eraiki zen.

## **2.2 Erakunde publikoetan erabilitako bizkuntza**

Labur esanda, euskararen erabilerari dagokionez, idatzizko erabilera –agerikoa– eta ahozkoa –itzalekoa– desberdin-

<sup>23</sup> Concepción Hidalgo de Cisneros Amestoy, Elena Largacha Rubio, Araceli Lorente Ruigómez eta Adela Martínez Lahidalga: *Ibidem*, 1. or. Jakina, berba hauek guztiak *Elorrioko toponimia* izeneko liburuan jasota eta aztertuta daude.

<sup>24</sup> *Egurza* euskarazko terminoa zenbait aldiz agertzen da lehen aipatutako obran, baita hurrengo mendeetako idazki askotan ere. Carmen Isasi Martínez eta beste batzuk: «Léxico vizcaíno (siglos XIV-XVD)», in *Oihenart*, 20. zk., Donostia, 2005, 73-201. or.

<sup>25</sup> Concepción Hidalgo de Cisneros Amestoy, Elena Largacha Rubio, Araceli Lorente Ruigómez eta Adela Martínez Lahidalga: *Ibidem*, 186. or. (34. dokumentua da, 1514. urtekoa).

<sup>26</sup> «*argitako*» berbak *limosna* esan nahi du.

du beharko genituzke. Aurretik adierazi dugun moduan, idatzizko ekoizpena modu eskusiboan gaztelaniaz egiten zen, gehienak euskaldun elebakarrak izan arren. Ahoz, euskaraz garatuko ziren dudarik gabe honako hauek: erakunde publikoetako eztabaidak, auzipetu eta testiguen adierazpenak judizioetan eta agintariak emandako arau eta manuen azalpenak. Beraz, hizkuntza bitartekariak (hau da, itzultzaileak) egongo ziren. Ikus ditzagun zehatzago baieztapen horien adibideak Elorrioren.

a) *Euskara Udalean*

Euskal Herriko gainerako lekuetan bezala, artxibo publikoetan eta udal artxiboan jasotako dokumentazio idatzi gehiena gaztelaniaz dago<sup>27</sup>. Hala ere, euskara biztanleen hizkuntza nagusia zenez, eta, kasu gehienetan, hizkuntza ezagun bakarra, batzuetan, gaztelaniaz idatzitako dokumentuetan euskara ahoz erabiltzeari lotutako aipamenak daude. Adibide pare bat emango ditugu, bata XVI. mendearen amaierakoa<sup>28</sup>, eta bestea XVIII. mendekoa<sup>29</sup>:

(En) la muy noble e muy leal villa de Helorrio que en el Señorío de Vizcaya (día) domingo a nueve días del mes de octubre de mill e quinientos e setenta e çinco años en la

<sup>27</sup> Beste horrenbeste gertatzen da Elorrioren sortutako dokumentazio idatzi guztiarekin. Adibidez: Elorrioko auzoetako kofradiak; ildo horretatik, «la presencia del euskera es nula en los documentos de la Cofradía» (Xabier Barrutieta Azkarraga-Urizar: *Ibidem*, 84. or.); 1968an, kofradia birsortzean, dokumentua euskaraz idatzi zuen Jaime Kerexetak (Xabier Barrutieta Azkarraga-Urizar: *Ibidem*, 59-60 or.).

<sup>28</sup> Elorrioko biztanleen errolda da. Foru agintariak eskatzen zuten eta Bizkaiko Foruak arautzen zuen. Santos de Pagadigorria Mugica: *Matricula y Padrón de los Caballeros Hijosdalgo de esta Muy Noble y Muy Leal Villa de Helorrio (1575-1831)*, Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, 1965, 111-112. or.

<sup>29</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Elorrioko toponimia*, CD, 2. Liburukia, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2006, 214. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitan dagoen eta signatura).



plaça publica de la villa donde se suelen hazer los ayuntamientos generales de los vezinos desta villa de Helorrio desde inmemorial tiempo a esta parte (...) hecho ansi el dicho ayuntamiento y haberse ayuntado todos o cassi todos los vezinos de la dicha villa y estando ansi ayuntados, el dicho señor alcalde mando al dicho liçenciado Vrquiçu, quel, pues estaba al cabo de la prouision real de su magestad e de lo demas a esta causa conçerniente e se abia platicado e tratado, diese a entender a los vezinos de la dicha villa que asi estaban ayuntados el hefeto para que fueron llamados porque cada vno entendida la caussa e razon dello dixiesse su paresçer libremente e hiçiesse lo que mejor a este pueblo le conbenia; el dicho liçenciado dixo en su cumplimiento a boz alta e ynteligible en lengua bascongada porque todos lo entendiesen (...)

Eleccion de señores para el nuevo Gobierno para el año de 1795. En la Sala de concejo y Ayuntamientos de esta Villa de Elorrio del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya, óy dia primero de Enero de mil Setecientos noventa y cinco: Se juntaron á signos de campana, despues de concluidas las misas conventuales de una y ótra Parroquia como lo han de uso y costumbre los Señores Alcalde, Justicia y Regimiento, y la maior y mas sana parte de loz vezinos, moradores, y Parroquianos de dichas Yglesias, cuios nombres y Apellidos se omiten por obiar proligidad; Y aviendo manifestado á este dicho Nobel Congreso un Pliego Cerrado donde se halla eleccion que han ejecutado para Señores cargo havientes, y del nuevo gobierno que ha de regir este año se abrió, y leído publicamente en Ydioma bulgar Bascongada, se aprobó unanimente por todos los individuos que constituien este Ayuntamiento general que componen la mayor y mas sana parte de esta citada Villa y su Comprension; ya conveniencia haviendo sido mencionados por su orden en Boletas para suerte rigurosas, salieron á saver (...)

Beraz, agintarien mezua Elorrioko biztanleengana itzulpenaren bidez iristen zen. Aurreko bi adibide horietan Udalean bertan euskaraz ematen ziren azalpenak ikusi ditugu; orain, mezua herriko biztanle guztiei helarazteko beste modu bat azaldu nahi dugu. Bide erraz eta eraginkorra eginkizun hori elizgizonei agintzea zen. Mezaren erdian, apaizek tarte bat utzi behar izaten zuten eliztarrei udal eta administrazio mailako gairik garrantzitsuenak azaltzeko. Adibide moduan, mota horretako lekukotza bi gehituko ditugu, bata, XVI. mendekoa<sup>30</sup>, bestea, XVII. mendekoa<sup>31</sup>: bietan Elorrioko parrokoak interes publikoa duen informazioa gure hizkuntzan ahoz eman duela adierazten du:

En la yglia de nra señora Santa maria deesta villa de helorrio dia domingo que se quentan seis dias del mes de octubre del dho año (1575) yo el dho juan olaui (?) elg (?) notifique el prebeimiento del señor alcde a la hora de la misa mayor estando enella oyendo misa los mas parrochianos della y les declare en bascuence (...)

En la yglesia matriz de la limpia concepcion de nuestra señora de la villa de helorrio, oy dia domingo catorce de diciembre de mill y seiscientos y treinta y seis años desde el pulpito de la dicha yglesia alofertorio de la missa conbentual que se diho en la dicha yglesia a pedimento de la parte, yo Pedro Abbad de miota vicario cura beneficiado de esta dicha villa segun costumbre, publique y declare en lengua bulgar bascongada de como oy dicho dia despues de bispera en la plaça publica desta dicha villa se avian de poner en candela y

<sup>30</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: CD, 1. Liburukia, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2006, 72. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura).

<sup>31</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: CD, 2. Liburukia, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2006, 377. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura).

almoneda publica los bienes de agustin de ossa y maria de yurretauria su muger ya difuntos (...)

b) *Euskara prozesu judizialean*

Esan dugunez, arau orokorra gaztelaniaz idaztea zen, eta hizkuntza horretan idatzita daude Elorriorekin lotuta artxibategietan aurkitu ditugun dokumentu gehienak. Hala ere, elorriarren ahozko jardunak euskaraz egiten ziren, eta, batzuetan, hitzak eta esaldiak jatorrizko hizkuntzan, euskaraz, idatzita aurkitu ditugu. Arraragoa da, benetako bitxikeria, prozesuan dokumentu bat euskaraz gehitzea. Hori, gutxienez, kasu batean gertatu zen. Egin dezagun aurrera apurka-apurka.

Hasteko, atal honetan interprete judizialak gogoan izan behar ditugu. Adibide moduan, Elorrion oso entzutetsua izan zen eta Bizkaiko korrejidorearengana<sup>32</sup> iritsi zen auzi bat aipatuko dugu. Bilboko auzotar bat euskara interprete izendatu zuten 1665. urtean Elorrion egin beharreko jardunean –akusatu eta lekukoen hitzak jasotzeko–, eta eginkizun horren truke egunean 500 marabedi jaso zituen<sup>33</sup>.

Euskarazko agerpenei dagokienez, badira hitz solteak auzi-paperetan, esaterako, aurretik ere aipatu dugun *egurza*, 1641. urtean<sup>34</sup>.

<sup>32</sup> Korrejidorea Espainiako erregearen ordezkaria zen Bizkaian, goreneko agintari judiziala; legez erdalduna izan behar zuen.

<sup>33</sup> Igor Basterretxea Kerexeta: *La sociedad elorriana del siglo XVIII. Ejemplos de vida cotidiana en una villa moderna del Duranguesado*, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Durango, 2009, 43. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura).

<sup>34</sup> Igor Basterretxea Kerexeta: *Ibidem*, 18. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura). *Elorrioko toponimia* izeneko lanean ere hainbat daude; CDaren lehen liburukian: 508. or. eta 934. or.; CDaren bigarren liburukian: 249. or., 367. or. eta 373. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura).

Beste kontu bat da esaldiak topatzea; baina bada halakorik ere. Hona hemen lekuko batek prozedura kriminal batean egindako adierazpenak<sup>35</sup>:

Dijo que en este punto le han dado cuenta de como en la caseria de Areanza del barrio de Yguria de esta jurisdicion, han visto tendidos durmiendo a unos hombres junto ala cocina de la dicha cassa, y que segun su modo y vestuario, son sospechosos, mayormente, saviendo como ay el rumor de decirse por muchos que en dicha caseria se recojen algunos salteadores de algun tiempo a esta parte (...) Y habiendo echo sus conzilios los dichos Martin y Domingo dicho Martin dixo a dicho Domingo, en bascuenze Bagara que es lo mesmo en castellano somos ya? que fue dar a entender al dicho Domingo que executase lo que havian propalado

Aipagarria da, baita ere, 1680ko auzipaper batzuetan jasotakoa. Ume bat Elorrioko elizan abandonatu omen zuten. Honela kontatzen du Igor Basterretxeak<sup>36</sup>:

acudieron al lugar los regidores de la villa y el escribano Joseph de Iztegui. Éstos comprobaron que el niño, pues era varón, se encontraba envuelto en un pellejo de carnero y que, entre éste y un delantal viejo, llevaba un papel escrito en letra mayúscula que decía en euskera lo siguiente: «*Bateatu bague da ta, bateatu eguizu*».

### **2.3 Eliza eta euskara**

Argi-ilunekin bada ere, Eliza lagungarria izan da euskarren erabilerarako eta iraupenerako. Alde batetik, liturgia latinez gauzatzen zen, idatziak latinez edo gaztelaniaz egiten ziren, apaizen prestakuntza linguistikoa eskasa zen, euskarari dagokionez, behinik-behin... Baina, beste alde batetik, Elizak

<sup>35</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Ibidem*, 115. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura).

<sup>36</sup> Igor Basterretxea Kerexeta: *Ibidem*, 53. or. (bertan adierazten dira dokumentuaren datu guztiak: zein artxibategitakoa den eta signatura).

euskara sermoietarako eta katekesirako erabili zuen, eta, men-  
dez mende, erabilera horien inguruan garatu zen gehienbat  
euskal literatura. Jarraian, Elorriori dagozkion zehaztapen ba-  
tzuk bilduko ditugu.

a) *Sermoigintza eta katekesia*

Trentoko Kontziliotik (1563) aurrera, herritarrei euren hiz-  
kuntzan irakastea eta predikatzea bultzatu zen. Jendeari mezu  
erlijioso helaraztea beharrezkoa zen, eta horretarako, komu-  
nikazioa eta ondo ulertzea ezinbestekoak ziren. Hori dela eta,  
sermoiak<sup>37</sup> eta katiximak<sup>38</sup> euskaraz garatzen hasi ziren, elizba-  
rrutiko kontzilioen arabera. Are gehiago, elorriarrek jokabide  
hori sustatu eta diruz lagundu ere egin zuten inoiz. Fenomeno  
horren adibide pare bat ezagutzen ditugu. Bietan doktrina  
kristauaren azalpena euskaraz eskainiko zela ziurtatu nahi zu-  
ten.

Lehenengo eta behin, Pedro Perez de Urquizu eta María  
Martinez de Iturberen<sup>39</sup> testamentua daukagu, 1592koa. Agiri  
horretan diru kopuru bat uzten da, apaiz batek doktrina eus-  
karaz irakatsi dezan. Geroago, Martín de Zenitaren 1707ko  
testamentuan antzeko zerbait aurkituko dugu. Sortzez Garbia-  
ren Parrokiako dokumentazioa arakatu dugu eta Martín de

<sup>37</sup> Adibidez, 1600. urtean, Pedro Manso Calahorrako gotzainaren erantzukizunpean, agindu hau eman zen: «Que en la tierra Vazcongada los Sermos sean en Vazquence».

<sup>38</sup> Esaterako, 1600. urtean, aurretik aipatutako Pedro Mansoren erantzukizunpean, agindu hau eman zen: «Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en lenguaje acomodado a las Provincias». Horren bidez, kateximak euskaraz argitaratzea eskatzen zen; euskalkietara egokituta, gainera. 1698an ohar bera egin zen, Pedro de Lepe gotzainaren erantzukizunpean: «Dase forma de cómo se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas».

<sup>39</sup> Igor Basterretxeak ezagutarazi zuen; Jose Luis Arruabarrenak ere jasotzen du *Aintzinako euskarazaleak Elorrión* izeneko orriari; orrialde horretan Martín de Zenitaren kontua ere aipatzen da.

Zenitak utzitako aginduaren arrastoak askotan aurkitu ditugu; XVIII. eta XIX. mendeetan aipamen ugari daude<sup>40</sup>, esaterako, nork hartuko zuen doktrina irakasteko ardura; artxibategian aurkitu dugun azken aipua 1866koa da.

b) Nola jasotzen zuten herritarrek elizatik zetorren informazioa

Alberto Ruiz Capellán-ek Santo Domingo de la Calzadan kokatutako eliz artxibategia aztertu du. Bertan Elorriori buruzko dokumentazio ugari dago, izan ere, garai hartan Elorrio herria Errioxan egoitza zuen elizabarrutiarekin lotuta zegoen. Gaztelaniaz idatzitako dokumentazio horretan behin eta berriro aipatzen da albiste hau edo bestea elizan euskaraz azaldu zutela; adibidez, ezkontza-dispensak, benefizioak edo soldatapeko ardurak ematea eta auziak<sup>41</sup>. Auzien kasuan, gainera, dokumentazioan agertzen da euskara itzultzaileak izendatzen zituztela.

## **2.4 Euskaraz idatzitako lau literatura-lekukotza**

Aro Modernoan hiru bertso ditugu Elorrioren, baina hiruretako bat ere ez zen bere garaian argitaratu; eskuz idatzita jaso ditugu eta kasualitatez izan dugu haien berri duela gutxi. Gainera, aipatzeko moduko pasarte bat ere badugu prosan, garai

---

<sup>40</sup>1714ko hitz batzuk jasoko ditugu, eta bertan, Calahorrako gotzainaren ordezkariak (esan bezala, Elorrioko parrokia elizbarruti horren mende zegoen) egindako bisita eta kontrolaren berri ematen da: «visitó la obra pía que con mil ducados de capital y treinta de reditos en cada año por el testamento cerrado debajo de cuya disposicion murió el Licenciado Don Martin de Cenita deo fundada y dispuso que en cada año se juntasen los señores curas y beneficiados de las iglesias de esta villa a toque de campana en el puesto que acostumbra hacer sus cavildos y en él hiciesen eleccion de uno de dichos señores curas, beneficiados o expectantes capellanes el que vieran ser benemerito para enseñar la doctrina cristiana en lengua bascuongada y no en otra forma a los niños, mancebos y demas personas que la ignoraren» (Bizkaiko Elizaren Histori Arkibua, Parrokietako artxiboak, Elorrio, Sortzez Garbia, 2000/001-00).

<sup>41</sup> Apaiz bat tartean duten auzi judizialak dira.

hartako euskal literaturako liburu aipagarrienetako batean txertatuta. Ordena kronologikoan aztertuko ditugu.

a) *Amodio kanta*: Ene veguiagaz vioçeen artean

Jaime Kerexetak Elorrioko elizako liburu batean aurkitu zuen. Hain zuzen ere, *Praxis ecclesiastica & secularis* 1606ko liburuaren bukaeran dator, eskuz idatzirik. Horren berri eman zuen Kerexetak 1958an *Euzko Gogo*a aldizkarian, eta Koldo Mixelenak gerotxoago landu zuen, *Textos arcaicos vascos* liburuan<sup>42</sup>. Testuari buruz Adolfo Arejita ere artikulu bat idatzi zuen<sup>43</sup>. Honako hau Mitxelenaren bertsioa da:

Ene veguiacaz vioçeen artean  
Errencore andiac erneçitean.  
Onerestea daucat viozean sarturic,  
Linda eder galampat causea yçanic.  
Veguiratu neguion ta egumbatean  
Errencore (andiac erneçitean).

Vioza veguien dago querella,  
Çana librea ahec gayti catigaçidilla,  
Ta atera ebelaco vere eserean  
Errencore (andiac erneçitean).  
Veguiac deuse egozten vioçari culpea,  
Aganic jaiočala onnerestea,  
Ta agaytirren aditu çerren çirean  
Errencore ( andiac erneçitean)

---

<sup>42</sup> Luís Mitxelena: *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madril, 1964, 122-123 or. (lanaren berrargitalpena, 1990. urtean, Anejos del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” delakoaren barruan).

<sup>43</sup> Adolfo Arejita: “Ene Veguiagaz Vioçeen artean” amodio-kantuaren eskuizkribua», in *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 6. zk., 1993, 142-147 or.

b) *Amodio kanta*: Enojaduric

Testu horren aurkikuntza, berriz ere, Jaime Kerexetari zor diogu. Elorrioko Francisco de Iruarritzaga Landaburu jaunaren liburutegian aurkitu zuen, kontu-liburu batean, hain zuzen. Liburu horren lehen orrialdeetan 1623. urteari dagozkion kontuak agertzen dira; beraz, XVII. mende hasierako testua izango litzateke. Liburuaren azken orrian dator eskuz idatzitako euskarazko testua; zoritxarrez, goialdean eta barrenean orrialdea janda dago, eta, horrenbestez, ez da oso-osorik irakurtzen. Testu horri buruz Adolfo Arejitak artikulu bat argitaratu zuen<sup>44</sup>.

(dama) eder Vatereaniq  
 (est)aquidala cegayti  
 enojaduriq aditujataz  
 yl eyten nauden Veguibi.  
 ayn tristeriq eta gustu guichigas  
 ni gana bier citiaan  
 ce enojaduriq egoceana  
 nigaz aguirri eudea  
 estaquit cer da caussoa  
 vaya aditu ta bertati  
 enojadu  
 estaucat niq triste oneq  
 meracidua gustia ta  
 mereciçaga yminiagaz  
 ayn altu onerechia  
 amorean licencia onetan enamonagayti  
 enojaduric  
 vegui ederroc emayten de(us)te

<sup>44</sup> Adolfo Arejita: «XVII. mendeko Bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: “Enojadurik”», in *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 5. zk., 1991, 10-20 or.



desfaboreriq asquo  
 (...oc) cirea (yc...z)  
 (...n le...).

c) *Ziri-bertsoak tabakoaren kontrabandoaren inguruan:*  
 Verzoso batzuq esaten nua

Bertso hauek Elorrioko toponimiari buruzko lana prestatzen ari zirenean aurkitu zituzten eta ikerketa-liburua<sup>45</sup> argitaratu zenean, 2006an, ezagutarazi ziren bertso horiek. Gerrogo, Asier Bidartek eta Adolfo Arejitak artikulu bat idatzi zuten testu horri buruz<sup>46</sup>. Bertsook 1683. urteko udal-espediente baten atzenengo orrian datoz. Zenbait daturi zein grafiari erreparatuta, ondoriozta daiteke bertsoak ez direla urte horretakoak, beranduagokoak baizik, XVIII. mendeko lehen herenekoak, ziurrenera. Nahiko egoera txarrean kontserbatzen diren bertso hauek Bizkaiko Aldundiko artxiboan daude gordeta, Elorrioko udal artxiboari dagokion atalean. Ziri-bertsotzat jotzen dituzte Arejitak eta Bidartek. Gaia, tabakoaren kontrabandoa. Hona hemen bertso horien bertsiogaurkotua:

Bersotxo batzuk e[sat]en nua [ . ]  
 Bazagoz exilik, g[a]u[r] adorea eu[kirik]  
 Bere literan sarturik, / etxe batzuk err[erik]  
 guardak lagun arturik.  
 Tabako jaiten dakienak / emen ask[o diral],  
 Emen asko da gizonik baiña, / ez Eskerra langorik.  
 Emen ez eze, Durango<n> bere / asko egin d[oa] tabakorik.

<sup>45</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Elorrioko Toponimia*, Labayru, Bilbo, 2006, 12-13 or.

<sup>46</sup> Asier Bidart eta Adolfo Arejita: «Elorrioko ziri-bertso batzuen izkribu hondarrak XVIII. mendean», in *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 11. zk., 2010, 265-275 or.

Ez Karakesen, Habanan bere ez, / Elorrion langorik  
 Berbarik ezin egin dogu / errazua eukia gaitik,  
 Kanpoko batzuk atrebiduak / errian egon agaitik,  
 Botikarioak, barberuak / Balerion artean,  
 Enuak berbarik egitera / kausa ekusi artean  
 San Gregori, San Alejo, / Jainkoen sierbo andiak,  
 Aren lonbreak dituzenak / errian maisu andiak  
 Erreal bi librea pagaduta, / amabi errealean saldu,  
 Emen baizen beste lekutan / ezin lei ori sufridu.  
 Tabako ginak nun dagozan / erriak ondo jakinik,  
 Ikuza jauna erririk erri / errekesitoria arturik  
 Ur iragoa gura zinduke / orain atzera biurtu,  
 Ikuza Jauna Bilborianik / berandu jaku agertu.

d) *Prosa*: Andre elorriarraren erretorika

Orain arte adierazi dugun moduan, ez dago Elorrioko euskara historikoaren lekukotza idatzi luzerik, goian aipatutako bertsoak kenduta. Hala ere, badugu interes handia duen testu bat prosan. Horri esker, XVIII. mendeko Elorrioko euskara idatzia nolakoa izan zitekeen jakin dezakegu. Zehatz esanda, idazle gipuzkoar baten lan batez ari gara: Agustin Kardaberaz-en (1703-1770) *Eusqueraren berri onac* (1761), «Pirineoz hegoaldeko euskal literatura klasikoaren pilare sendoetariko bat»<sup>47</sup>.

Liburu horretako pasarte batean, Kardaberaz erretorikari eta ondo hitz egiteko arteari buruz ari da. Euskarari lotutako adibideak emateko, berezko erretorika euskaldunaren bi adibide ipintzen ditu, bata Gipuzkoakoa (Donostian kokatua)

<sup>47</sup> Adolfo Arejita: «Agustin Kardaberaz: zenbait hizkera-ezaugarri eta bizkaieraren iturriak», in Elixabete Pérez eta Esther Zulaika (ed.): *Agustin Kardaberaz. Hirugarren mendeurrena (1703-2003)*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 2003, 91. or.

eta bestea Bizkaikoa (Elorrioren kokatua). *Andre elorrioarraren erretorica* izeneko pasarte da<sup>48</sup>. Egilearen esanetan, testua ez zuen bere euskalkian eman nahi, bizkaieraz baizik<sup>49</sup>. Egia esan, Elorrio oso ondo ezagutzen zuen, eta horren erakusle da Sortzez Garbiaren parrokiako atean kokatutako plaka, bertan esaten baita Kardaberazek gure herrian Jesusen Bihotza-ren Kongregazioa sortu zuela. Hona hemen testu honen bertsiogaurkotua:

Bizcaico abade jaquitun batec bere lloba bat errico ehandera baten seme bacarragaz ezcondu gura eben. Baia andreac icusiric abadeac esquintcen eutsan dotea bere echaguniteari eta onec cituban obligaciñoai eranzuteco adiña eztala, al eguiian moduric onenean escusadu iacan. Orregati bere sacerdote iaun onec beti dote laburra opa eutsan, guero gueituteco ustez; eta adietan emon gura izan eban bere llobeac cituban aide aberatsac, eta aetatic uste cituban urrezco mendiac edo ondasunac, eta etorquizun onen errezcada luce bat chito ederto contadu eutsan.

Echandera cindoac epe galantagaz guztia entzun eta azqueanean sacerdoteari modu onetan esan eutsan:

— Eta, jauna, zure mesedeac etorquizuna bazau?

— Ez, andrea.

— Baquizu etorquizuna celangoa dan? Zuria ala baltza dan?

<sup>48</sup> Liburuak hainbat edizio izan ditu. Osatuena aipatuko dugu jarraian. Bertan Elorrioren kokatutako testua bi lekutan aurkituko dugu: orijinalaren faksimilean (104-106. or.) eta testuaren edizio kritikoa (44. or.); Agustin Kardaberaz: *Eusqueraren berri onac*, Patxi Altuna eta Esther Zulaikaren edizio kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo, 2004.

<sup>49</sup> Horren inguruan, hau dio: «*ceren contuac nere gustoco ta berezco angoc eusqueraren gracia andia duen, bizcaitarra baninz bezala aien guisa contatucode*» (Agustin Kardaberaz: *Eusqueraren berri onac*, Patxi Altuna eta Esther Zulaikaren edizio kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo, 2004, 44. or.).

— Ez, andrea.

— Etorquizunagaz ian edo edan bozu, edo beragaz bici izan bazara.

— Ez, andrea.

— Bada, jauna, etorquizunaren barri obagoric eta segurubagoric ezpozu, zu gueldi zaite ceuregaz, eta ni bere banoa neuregaz.

Eta orrembestegaz abade jaquitun ori ill otza leguez gogortu ta mututuric andreac itxi eban.

### 3. XIX. mendetik XX. mendera

Atal honetan, XIX. mendetik XX. mendearen amaierara doan tarteari buruz hitz egingo dugu. Aldi honen hasieran, egoera aurreko aldiaren antzekoa zen, hau da, euskara Etorrioko hizkuntza nagusia zen, baina boteretik eta kultura idatzitik aldenduta zegoen: gaztelania zen administrazioan eta hezkuntzan erabiltzen zen hizkuntza.

Denborak aurrera egin ahala, gaztelania gero eta gehiago hedatu zen eta ospe handiagoa lortu zuen. Adibide pare bat jarriko ditugu. Hasteko, 1864. urtean emandako misioak aipatuko ditugu. Misioak eginkizun publiko erlijiosoak ziren, eta horietan elorriarrek parte hartzen zuten. Misio horiek jesuiten eskutik egin ziren eta erdara ere erabili zen, hain zuzen ere «Guardia Civil» eta «carabineros» izenekoek eskatuta, bestela ez zuten ezer aditzen eta<sup>50</sup>. Bainuetxeen kasua ere aipa dezakegu: Jose Luis Arruabarrena elorriarrak *Antzinako Euskeraza-*

<sup>50</sup> Elizbarrutiko aldizkari ofizialean irakur daiteke albiste hori (1864ko 18. zenbakian, 154-157. or.). Informazio gehiago nahi izanez gero, Cesar Gallastegi Aranzabal: «Euskara eta euskal kultura Gasteizko Elizbarrutiaren Aldizkarian (1862-1900)», in *Karmel*, 2009-2, 3-15 or.

*leak* esku-orrian egiten du gogoeta fenomeno horrek gaztelania hedatzeko orduan izan zuen eraginaz<sup>51</sup>.

Baina mendea aldatzean, Elorriorentzat eta euskararentzat garrantzi handia izan zuen gertaera jazo zen: abertzaletasunaren sorrera eta hedapena. Mugimendu horrek euskara sustatu zuen Elorrion eta baita Euskal Herri osoan ere. Elorrion, adibidez, lehenengo ikastola garai horretan sortu zen, 1933an, hain zuzen ere; Euskal Herrian, euskara hizkuntza ofizial izatera iritsi zen Autonomia Estatutuaren eta Euzko Jaurlaritzaren eskutik, 1936an. Zoritzarrez, frankismoak aukera horiek guztiak zapuztu zituen.

### **3.1 *Balendin Berrio-Otxoa santua***

Balendin Berrio-Otxoa (1827-1861) Elorrioko pertsonaiarik ezagunenetakoa da. Euskaraz idatzi zuen lehenengo idazle santua izan zen, Hegoaldean behintzat: izan ere, Balendinek etxekoei idatzitako hainbat euskarazko gutun gordetzen dira. Horrenbestez, aukera paregabea eskaintzen dute orduko euskara ezagutzeko<sup>52</sup>. Gainera, Berrio-Otxoaren ospea Euskal Herri osora zabaldu zen, segidan azalduko dugunez.

---

<sup>51</sup> Bertan dio: «aberatsak udako oporrak hartzen hasi ziren, eta Elorrioko kategoriazko bi bainu etxetara etortzen. Ondorioak, beste batzuen artean kulturalak, laster ikusi ziren. Etorri berri erdaldun horiek urak hartu ondoren, inguru guztietatik zabaltzen ziren, ibilialdietan eta solasaldietan, denekin erderaz barriketan eta euren gustuko izen arrotzekin lekuak berriz izendatzen (adibidez “Chamberi” etxea, “Las Delicias” edo “La Paz” ostatuek, “San Miguel de Monte” Kanpanzar osteko auzoa...). Azkenean erdera gero eta gehiago entzuten zen kalean, edonork garrantzi itxura bereganatzeko erderaz hasten zen barriketan bertan, eta are gehiago Espainia aldera edo Ameriketara joateko» (Jose Luis Arruabarrena Gallastegi: *Antzinako Euskerazaleak*; zuzenketak: Inma Eguen, argitaratzailea: Barriketan, Elorrioko Euskaldun Taldea, leku eta data ezezagunak).

<sup>52</sup> Aita elorriarra zen; ama, berriz, Antzuolakoa. Hemezortzi urte bete arte ez zen Elorriotik atera.

a) *Balendin Berrio-Otxoaren gutunak*

Erlijio-gizon honi dagokionez, lan klasikoez gain, nahi-taezkoa da Roman Berriozabalek atondutako lanak kontsultatzea<sup>53</sup>. Gutunak direla eta, Berriozabalek dioenez: «*Ezagutzen doguzanen artetik hogeitaz euskeraz idatzita dagoz. Euretatik hamazortzi amari egindakoak dira; bakarra gurasoei, eta beste bat Ocañan ezagutu eban monja euskaldun bati*»<sup>54</sup>. Adolfo Arejitak, berriz: «*berez-berezko euskerea dario, bizia, mardula eta giharratsua*»<sup>55</sup>. Gutun horiek batzuetan bertso modura edo bertsoekin hornituta idatzi zituen.

b) *Balendin Berrio-Otxoaren ospeak eragindako lanak*

Interesgarria da esatea Berrio-Otxoak euskarazko idazlanak agertzea eragin zuela. Lehenengo eta behin, Balendin Berrio-Otxoa santuaren omenez idatzitako bertsoak eta poemak aipatu behar ditugu. Gai hori ere Roman Berriozabalek sakon aztertu du, eta horren inguruan argitaratu zuen liburura joko dugu<sup>56</sup>. Labur esanda, Berriozabalek 55 testu jaso ditu euskaraz eta gaztelaniaz: 32 euskarazkoak dira, eta kronologiari erreparatuz, Xenpelarrek 1867an idatzitako bertsoak dira lehenengoak. Hainbat egileren testuak agertzen dira, hala nola, Felipe Arrese Beitiarenak, Kepa Enbeitia *Urretxindorra*-renak, Resurrección María de Azkuerenak, eta herriko egileenak, besteak beste, Claudio Gallastegirenak; horrez gain, egile ezezaguneko testu ugari ere jasota daude. Gainera, Berrio-Otxoaren bizitza prosazko zenbait lan erlijioso eta biografiko

<sup>53</sup> Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskarazko gutunak*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2006. Romanek sarrera bat («Balentin Berrio-Otxoaren biografia eta lanak») eta bilketa lana egiten du, eta Adolfo Arejitak beste sarrera bat («Euskerazko gutunen hizkera-azterketa»).

<sup>54</sup> Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Ibidem*, 12. or.

<sup>55</sup> Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Ibidem*, 29. or.

<sup>56</sup> Roman Berriozabal Azpitarte: *Agur Balentin! Balentin Berrio-Otxoa santuaren omenez jarritako bertso- eta olerki-bilduma-Recopilación de versos y poesías en honor de San Valentín Berrio-Otxoa*, 2007.

idazteko inspirazio-iturri ere izan zen. Roman Berriozabalen lanaren amaierako biografian testu horiek jasotzen dira.

### 3.2 *Euskara bizitza publikoan*

Aurretik esan bezala, erdara zen administrazioaren eta bosterearen inguruko lan tresna<sup>57</sup>. Euskararen egoera zein zen ikusteko, zenbait erreferentzia emango ditugu.

#### a) *Azalpenak euskaraz Udalean.*

XIX. mendean azalpenak euskaraz ematen jarraitzen zuten<sup>58</sup>, baita XX. mendearen hasieran ere: «*Las actas de las sesiones, tanto las del Ayuntamiento, como las de la Junta Municipal, se leen siempre por el Secretario con la debida pausa, precisión y claridad, explicando además traducidas al vascuence, cuantas veces se crea necesario, sin que se agreguen párrafos de conceptos no manifestados, discutidos o acordados*»<sup>59</sup>.

#### b) *Azalpenak euskaraz herritarrei (1926)*

Udal agintariei ez ezik, herritarrei ere ematen zitzaizkien euskarazko azalpenak. Adibide bat jarriko dugu, 1926ko enkante publiko batekoa: «*En el Salón Consistorial de ésta villa de Elorrio, siendo las once y media horas del día veinte y tres de Mayo de mil novecientos veinte y seis, se reunieron los*

<sup>57</sup> Horrenbestez, gaztelaniaz aritzen ziren Elorrioko elite eta agintariak. Hala ere, bitxikeria modura honakoa jaso dugu: 1809an, Francisco Maguregui errementariak alkate karguan ez jartzeko eskatu zuen, eta horretarako emandako aitzakia gaztelania ez jakitea izan zen, besteak beste (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio Atala, Udal Erregimena eta Hirigintza azpiatala, AR00392/026 signatura).

<sup>58</sup> Esaterako, 1832an, Elorrioko udal idazkariak Bizkaiko agintariei adierazi zien Aldundiko zirkular bat irakurri eta euskaraz azaldu zuela (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio Atala, Segurtasun Publikoa, Gerrak eta Zerbitzu Militarra azpiatala, AQ 00001/018 signatura).

<sup>59</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Elorrioko toponimia*, CD, 2. liburukia, La-bayru Ikastegia, Bilbo, 2006, 415. or.

*Sres. Concejales que al margen se expresan, después de los Divinos Oficios de la parroquia, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Domingo de Lasuen, con asistencia del empleado D. Alejandro de Larrañaga, en sustitución del Secretario de la Corporación; y previa lectura de las condiciones del remate, traducidas en el acto en la lengua vulgar del país para mejor comprensión, se sacó a un solo remate el aprovechamiento de las hierbas de la finca Las Delicias, hasta el día 1º de Noviembre próximo»<sup>60</sup>.*

c) *Notarioaren azalpenak euskaraz (1898)*

Herritarrok notarioekin testu garrantzitsuak jorratu ohi ditugu: salerosketak, testamentuak... Abagune horretan ere erdaraz idatzi izan da eta euskaraz azaldu: *«Leído este instrumento íntegramente y en alta e ininteligible voz por mí, a instancia de los concurrentes, previa advertencia y renuncia de sus derecho a verificarlos por sí mismos y explicado a mayor abundamiento su contexto en idioma vascongado manifiestan los otorgantes su completa conformidad con lo redactado y explicado»<sup>61</sup>.*

d) *Albaitaria (1858. urte inguruan), medikua (1876. urte inguruan) eta pregoilaria (1937) izateko baldintzak*

Herritarrekin harremanetan dauden lanbideetan noiz edo noiz agertzen zaigu euskararen eskakizuna. Lehenengo kasuan, hau esaten da: *«Hallandose vacante la plaza de médico-cirujano titular de esta villa, (...) se advierte que no será agraciado ninguno que no posea el idioma vascongado»<sup>62</sup>.* Bigarrenari dagokionez, hau: *«Terminado el plazo de admisión de*

<sup>60</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Ibidem*, 345. or.

<sup>61</sup> Pasarte hau jasotzen duen idazkiaren lehen orrialdean hau dio: «Escritura de capitulaciones matrimoniales formalizada para el enlace de D. Ambrosio de Solagaistua y Aranzabal con D<sup>a</sup> Petra de Arieta-Leaniz y Azcárraga, solteros, residentes en dicha villa. Ante el Notario Público Lcdo. D. José Ortiz de Vidasolo». Testua Anselmo Díaz Marquezi esker kontsultatu dugu.

<sup>62</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Ibidem*, 312. or.



*solicitudes, el Alcalde convocara de nuevo á la Junta municipal para la elección y nombramiento del facultativo, debiendo elegirse el nombrado entre todos los aspirantes que llenaren todos los requisitos exigidos por el anuncio oficial del concurso y conceptuándose como condición indispensable ser vasco y poseer con perfección el idioma vasco*<sup>63</sup>. Gerra Zibilaren aurretik euskara udalbatzaren aktetan aipatzen den azken kasua pregoilariarena da, 1937ko martxoan: euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakin behar zuen<sup>64</sup>.

e) *Euskarazko hitzak*

Garai honetan gaztelaniaz idatzitako testu administratibo eta juridikoetan, euskarazko hitz solteak («*arerian*», 1836. urtean)<sup>65</sup>, zein esamoldeak («*gueldi emen*», 1914. urtean)<sup>66</sup> aurki daitezke.

f) *Euskara kartel publiko handi batean (1874)*

Behin eta berriro adierazi dugun moduan, badirudi euskara ikusezina zela, hainbat esparrutatik baztertuta zegoelako. Hala ere, euskarari balioa aitortzen dion lekukotza bat aipatu behar dugu, hain zuzen ere, politika mailakoa: bigarren gerra karlistaren garaian, Karlos VII. Erregeari ongi-etorria emateko

<sup>63</sup> Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Ibidem*, 288. or.

<sup>64</sup> Roman Berriozabal Azpitarte: *Nacionalismo vasco en Elorrio*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2007, 227. or.

<sup>65</sup> «*Que ademas labra cultiva y trae en arriendo dos pedazos de buerta de la casa principal (...) bajo la renta titulada en lenguaje bulgar bascongada Arerian*»; Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Ibidem*, 373.

<sup>66</sup> «*cuando se dirigía el compareciente (...) hacia su casa que vive en el barrio de Aldape, distante á unos veinte y cinco minutos de esta villa, y al llegar al par del jaro titulado de Amandarro, que se encuentra junto á la carretera que se dirige de esta villa á la de Vergara, distante desde el casco de la villa al punto indicado unos quince minutos, se ha encontrado con Victor Sagastizabal, quien al acercarsele le ha dicho al exponente en vascuence “gueldi emen”, que quiere decir “quieto aqui”*»; Asier Bidart eta Miriam Eriz: *Elorrioko toponimia*, CD, 1. liburukia, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2006, 48. or.

pankarta bat prestatu zen euskaraz. Pankarta horretan, testu hau idatzi zuten: «*Erligioa, Erria, Erregue, Foruac*»<sup>67</sup>.

### 3.3 Mende basierako apaiz euskaltzaleak

Atal honetan zenbait apaiz aipatuko ditugu, eta bakoitzak ezaugarri bereziak ditu. Lehenengoa ez zen elorriarra, baina lau hamarkadaz herriko parrokoa izan zen. Bigarrena elorriarra zen, baina herritik kanpo egin zuen lan. Hirugarrena Elorrio uztera behartu zuten. Hiru apaiz horiek oso ezagunak dira, baina laugarrena ez: elorriar honek bere erlijio testuak idatzita utzi zizkigun, baina orain arte ez genuen lan hori ezagutzen.

<sup>67</sup> San Juan eta Berrio-Otxoa kaleek bat egiten duten lekuan, gaur egun iturria dagoen lekuan, letra handi eta ondo ikusteko modukoetan, euskara lehen lerroan agertu zen: «*En la plazuela donde confluyen las carreteras de Vergara y Mondragon (dando frenle á la calle de Suso, la principal déla villa), alzábase gallardo un precioso arco triunfal: pertenecía su estilo á la arquitectura gótica, era sencillo y sin mas adornos que las proporciones á que dicho estilo se presta. Se componía de tres arcos sobre una planta rectangular, y de ocho airoas columnas, que rebasando los arcos, se elevaban por los aires para adornarse con lindas banderas. (...) En el paramento ó fachada hacia la carretera y en los arcos se colocaron tres inscripciones (...) En el paramento opuesto se puso en el centro un gran lienzo con la inscripción Laurac bat (...) en los arranques de las columnas y en igual forma que en la otra fachada aparecían cuatro inscripciones con los lemas Erligioa, Erria, Erregue, Foruac. Todas las inscripciones se adornaron con coronas de llores naturales y preciosas guirnaldas á su alrededor;*; eta aurrerago «*Aclamados por el pueblo y en medio de una extraordinaria animación salieron S S. M M. de Elorrio á las once de la mañana para dirigirse á Durango, donde debían descansar un día. El camino fué una no interrumpida romería: los habitantes de todos los caseríos salían á la carretera con sus trajes de dias de fiesta, formando animados y variados grupos que, apenas distinguían el carruaje real, se estendían en ala y no separaban su vista de los Reyes: los vivas se sucedían unos á otros, la mayor parte en vascuence;* Arístides de Artíñano: *Crónica del viaje de los Reyes de España por su M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya en Junio de 1874*, Imprenta de Pedro Gurruchaga, Tolosa, 1874, 5. or. eta 18. or.

a) *Jon Izurrategi Berrostegeta (1863-1938)*

Bilbon jaio zen, 1863an (aita ondarroarra zuen). Sabino Aranaren ikaskidea eta laguna izan zen. Apaiz-ikasketak egin ondoren, Elorrioko parroko izendatu zuten 1897an, eta ia berrogei urtez eginkizun horretan jardun zuen<sup>68</sup>. Lau hamarkada horietan, euskararen eta euskal kulturaren aldeko lan handia egin zuen. Euskaraz hainbat artikulu argitaratu zituen aldizkari eta egunkarietan, eta zenbait liburu ere kaleratu zituen<sup>69</sup>; herriko lehen ikastola eratzen ere parte hartu zuen. 1937an espetxeratu eta kondena luzea ezarri zioten. Espetxean hil zen, 76 urte zituela. Elorrioren omenaldia egin zioten 2008ko azaroaren 30ean.

b) *Angel Arabiotorre Berraondo (1867-1947)*

Elorriar hau Etxebarriko San Agustin elizako parrokoa izan zen. Roman Berriozabalek kontatzen duenez: «*En 1917 fue trasladado a Bedia a modo de castigo por haber traducido al euskera algunos textos religiosos en atención a la inmensa mayoría de sus feligreses euskaldunes de la parroquia de San Agustin de Etxebarria, en Elorrio. Asimismo, a la edad de 71 años, hubo de exiliarse a Francia y Bélgica con motivo de la Guerra civil. Tras su regreso fue desterrado a Osma (Araba)*»<sup>70</sup>.

c) *Eugenio Larrañaga Landaburu (1898-1966)*

Apaiz hau Elorrioren jaio zen, eta gerra zibilaren amaieran espetxeratu egin zuten<sup>71</sup>. Eginkizun erlijiosoa batez ere sorte-

<sup>68</sup> Roman Berriozabal Azpitarte: *Ibidem*, 4. or., 17. oin-oharra.

<sup>69</sup> *Umechuen jauna artuterako berbaldi laburrak* (1912); *Ama Naigabe-tuari bederatzi-urruna* (1921); *Jose Deunaren bederatzi-urruna* (1921); *Jerusalen osterean: semeak amari* (1923); *Ondarru'ko Antigua'ko Ama Laztanari bederatziurrena* (1931) eta *Urteko igande guztietarako Goizpar edo Ebangelioak* (1934). 1905ean Palestinara eginiko bidaian amari bidalitako berrogeita sei gutun agertzen dira 1923ko liburuan.

<sup>70</sup> Roman Berriozabal Azpitarte: *Ibidem*, 4. or., 18. oin-oharra.

<sup>71</sup> Biografiaren eta lanen berri laburra izateko, hona jo: Santiago Onaindia: *Euskal Literatura*, 5. lib., Etor, Bilbo, 1977, 70. or.

rritik kanpo garatu zuen, baina artikulu batzuetan garai hartako Elorrioko euskarazko testuak jaso zituen. Hain zuzen ere, Gasteizko seminarioan ikasle zela, folkloreakin zaletu zen Jose Migel Barandiarani esker, eta honek sortutako aldizkarian, *Anuario de Eusko Folklore*, honelako artikuluak idatzi zituen: «[Refranes y dichos populares de] Elorrio»; «Canciones y romances de Elorrio (Vizcaya) y Alegría (Álava)»; eta «Fiestas populares en Elorrio»<sup>72</sup>.

d) *Antonio Arieta-Orbe Jauregi*

1883. urtean jaiotako Antonio Arieta-Orberen lana ia-ia kausalitatez ezagutu dugu<sup>73</sup>. Hiru koaderno dira, eta horietan euskarazko eskuizkribuak daude. Zehatz esanda, lehenengo koadernoan 23 sermoi jasotzen dira 186 orrialdetan; lehenengo bi sermoiak eta azkena gaztelaniaz daude, eta gainerakoak, euskaraz; lehenengo sermoiaren data 1907ko urriaren 13a da<sup>74</sup>. Beste bi koadernoek –osotasun bat dira, *Dotriñaco*

<sup>72</sup> «[Refranes y dichos populares de] Elorrio» artikuluan (*Anuario de Eusko-folklore*, 1. zk. 1921, 52-55), hogeita zazpi esaera jaso ziren euskaraz eta gaztelaniaz, hala nola (hitzez hitz kopiatuta): «Elorrijoko buskantza, zazpi libra ta bost ontza», «Antzuola'n sedia, Bergara'n koipia, Elorrijo'n buskantza, Durango'n trompia»... Hona hemen beste bi artikuluen erreferentzia: *Anuario de Eusko-folklore*, 1. zk. 1921, 71-80 (abestiak gaztelaniaz dira) eta *Anuario de Eusko-folklore*, 2. zk. 1922, 53-59 (Ostegun Santuko abesti bat dago jasota). Baina berak egindako ekarpenak ez dira hor bukatzen; adibidez, J.M. Barandiaranen artikulu batean, Elorrioko sorgin-ipuina bat dago jasota (Jose Miguel de Barandiaran: «Sorguin, Belaguile, Brujas», in *Munibe*, 1-2 zk., 1974, 64. or.), eta beste artikulu batean, Elorrioko lamiei buruzko ipuina bat (José Miguel de Barandiaran: «Tradiciones y leyendas: Lurpeko eremueta = en las regiones subterráneas: Genios de figura humana o semi-humana (continuación)», in *Eusko-Folklore*, 7. zk., 1956, 164. or.). Horiek guztiak Eugenio Larrañagak jaso zituen.

<sup>73</sup> Anselmo Díaz Marquezi esker ezagutzen ditugu. Gure eskerrak, baita ere, Jesus Arieta-Orbe Ibarraraunari, emandako informazioagatik: bere esanetan, osaba Sodupen eta Portugaleten egon zen apaiz, eta batzuetan sermoi batzuk egiten zituen Elorrian.

<sup>74</sup> Sermoi horien artean, koadernoko 145. orrialdean, San Balendin eguneko sermoia dago; hau da izenburua: *Berbachu bi Valentin doatzuaren ga-*

*asalduerac* izenburupean– 201 orrialde eta 98 orrialde dituzte hurrenez hurren, guztiak euskaraz.

### **3.4 Elorrio'ko guraso ta etxeko nagusien bazkuna**

Arestian azaldu dugun moduan, Eliza euskararen habia izan da. Alabaina, mende berriak zenbait berrikuntza ekarri zituen eta horren adibide bat jarriko dugu. Elorrioko parrokiaren barruan, 1918an, Juan Izurrategi parroko zela, gurasoen elkarte bat sortu zen. Elkartearen akta liburuan<sup>75</sup>, 14. orrialdean, estatutuak euskarara itzuliko direla esaten da («*a vascuence usual en la localidad el Reglamento de la “Asociación” e imprimirle, ya en el idioma castellano en que está redactado, ya también en su traducción euskara*»); 15. orrialdean, testua inprimatzeari buruzko datuak datoz («*se imprimieron doscientos cincuenta ejemplares*»). Ez da inon esaten, baina badi-rudi itzulpena Juan de Izurrategik<sup>76</sup> berak egin zuela.

Aipatutako araudia inprimatu egin zen, izenburu honekin, hain zuzen ere: *Reglamento de la Asociación de Padres y Jefes*

---

*ñian*. Hona hemen lehenengo lerroak: «*Gaur 82 urte agueru zan iri onetan umechu bat arots pobre eta humilde batzuen semia, Jaungoicua gauza andijetaraco autu ebana eta egunen batian bere errijari eta Bizcaijari gloria andija emongo eutzana; umechu au ezagututen dosue gustioc nor dan; batzuec icusi dosuelaco ebian, calian, escolan, Elexan eta beste lecu ascotan; beste batzuec barris icusi ez arren, entzun deutzasuelaco ceuben gurasuai eta edadian aurrera duazanai bere bizitzaco gauza asco*».

<sup>75</sup> *Actas de Padres de Familia de la Parroquia de la purísima Concepción de Elorrio* (Bizkaiko Elizaren Histori Arkibua, F006.154, 1981/002-00).

<sup>76</sup> Arautegi horren lehenengo artikulua jaso dugu, erabilitako euskara ikusteko: «*Aita Santuaren berariazko eskarrez, Elorrio'ko uri onen Jagola ta Zaintzaile dan Berriotxoat'ar Balendin zoriontsuaren izen eta ardurapean, uri onetan bertan Guraso Ta Etxeko Nagosien Bazkuna atondu ta irasten dogu Eleizearen agintz eta Laterriko Baltzu-legien arauz, Jainkoak, izatezko legeak, Laterriko Lege-Nagosi ta enparabak geure ume ta etxekoak zinñesmen garbi, irakaskintza ta ekandu onetan azteko damoskuezan eskubide oro, legetik urten barik, zaindu ta aldeztuteko asmoz. Bazkun onek bere etxea Elorrio'n dauka ta bere batzarrak Sorkunde-Garbiaren elizako txandongelan ospatuko ditu*».

*de Familia de Elorrio-Elorrio'ko Guraso ta Etxeko Nagusien Bazkunaren Arautegia, Zornotzako Jaungoiko-Zale Bazkuna delakoaren inprimategian, 1918. urtean.*

### **3.4 Abertzaletasunaren eragina**

Abertzaletasunaren eragina oso zabala izan zen, eta hizkuntza ere barruan hartu zuen. Hurrengo lerroetan, abertzaletasunari lotutako alderdi batzuk eta horiek Elorrioren izandako emaitza aipatuko ditugu.

#### a) *Herriko idazleak prentsan (1909)*

Abertzaletasunaren beste ondorio bat izan zen garai hartako prentsan eta aldizkarietan euskarazko idazle kopuruak gora egin zuela. Herriko kolaboratzaileak ziren, herrietako azken albisteen berri ematen zutenak. *Nacionalismo vasco en Elorrio* liburuan izen ugari daude jasota; adibide modura, 1909tik aurrera, *Bizkaitarra* aldizkarian idazle hauek agertu ziren: *Udala, Berrio Otxoa'tarzale bat, Buzkantza...* Idazleen kopurua—emakumeak barne<sup>77</sup>— handituz eta beste argitalpen batzuetara zabalduz joan zen.

#### b) *Izen euskaldunak umeei (1911)*

Mende hasieran jaioberriei izen euskaldunak jartzen hasi ziren euskaltzaleak. Gai horrek buruhauste handiak ekarri zituen abertzaleari, elizako agintariek eta agintari zibilek kontra egin zutelako. Roman Berriozabalek<sup>78</sup> dioenez, era horretako lehen albistea 1911n aurki dezakegu, gaia bero-bero zegoenean; urte horretan, Elorrioko neskato bati Miren Jaione izena jarri zioten. Ondoren, mota horretako beste aipamen batzuk daude.

<sup>77</sup> Román Berriozalen liburuan emakumeen izenak agertzen dira. Horrez gain, hau aipatu behar dugu: Jose Luis Lizundia Askondo: «Emakumeak idazle Durangerrian», in *Euskera*, 48-2 zk., 2003, 681-692 or.

<sup>78</sup> Roman Berriozabal Azpitarte, *Ibidem*, 38. or., 172. oin-oharra.

c) *Gobernadore Zibila euskararen aurka (1916) eta politika abertzalea Bizkaiko Aldundian (1917)*

1916an, udal erakundeetan euskararen erabilera astindu zuen gertakari bat izan zen. Bizkaiko gobernadore zibilak, 1916ko otsailaren 3ko aginduaren bidez, «dialecto vascongado» edo euskararen erabilera herri erakundeetan murriztu nahi izan zuen. Bizkaiko zenbait udalek gobernadore zibilaren aurkako gaitzespen ekintzak antolatu zituzten. Elorrioko Udalak gaia 1916ko otsailaren 13ko bilkuran jorratu zuen. Udaleko aktaren arabera, aho batez onartu zen gobernadore zibilari protesta bidaltzea eta aurrerantzean ediktuak eta bandoak euskaraz eta gaztelaniaz idaztea, herritarrek hobeto uler zitzaizten.

Hurrengo urtean, 1917an, jeltzaleak hauteskundeetan nagusitu egin ziren eta Aldundia eskuratu zuten; horretaz baliatuta, euskararen aldeko neurri ugari hartu zituzten. Adibide bi: Bizkaiko Aldundiak udaletara bidalitako zirkularrak euskaraz ere idazteko erabakia hartu zen<sup>79</sup> eta horrek Elorrioko udal dokumentazioan isla izan zuen: zehatz esanda, akta-liburuan, 1917ko ekainaren 4an, Aldundiak bidalitako lehenengo euskarazko testua kopiatuta agertzen da, ekainaren 8an bigarrena, etab.; bigarren adibidea: abertzaleen eraginez auzo-eskolak antolatzen hasi ziren eta, geroago bada ere, 1922an abertzale kutsuko Miotako eskola zabaldu zuen Bizkaiko Aldundiak<sup>80</sup>. Hiru unetan, Elorriko aitzindaria izan zen hezkuntzan: auzo-eskolak, II. Errepublikako euskal eskola eta frankismo garaiko ikastola.

---

<sup>79</sup> Cesar Gallastegi, Anjel Lobera Revilla eta Andres Urrutia Badiola: «Euskarazko testugintza juridiko-administratiborako osagaiak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zirkularrak (1917-1920)» in *Karmel*, 1999, 4. zk., 3-19 or.

<sup>80</sup> Gregorio Arrien: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia: escuela y autonomía. 1898-1936*, Bizkaiko Foru Aldundia, 1937.

d) *Kaleen izenak (1918)*

Vicente Arieta<sup>81</sup> zinegotziak egindako proposamenean, hau eskatu zuen: «*siendo la casi totalidad de los habitantes de la Villa de Elorrio los que habitualmente hablan el vascuence se pongan los nombres de las calles y barriadas en el idioma euskaro*»; Udaleko osoko bilkurak, 1918ko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, proposamena onetsi zuen.

e) *Ikastola (1933)*

Elorrioko euskal eskola II. Errepublikan sortu zen, 1933. urtean. Urte horretako otsailaren 2an inauguratu zuten. Euzko Ikastola Batza osatzen zuen. Aurreko urtean eskola publikoan euskararen erabilerarekin arazo bat gertatu zen<sup>82</sup>. Inauguratu zutenean, eskolan laurogeita hemeretzi ume zeuden, eta umeen kopuruak gora egiten jarraitu zuen. Gerra Zibila piztean, eskola itxi egin zuten.

f) *Bestelakoak*

Ez ditugu ahaztu nahi euskaltzaletasunaren beste agerpen batzuk, hala nola, *Berrio-Otxoa Burdiñola* eta euskarazko

---

<sup>81</sup> Ez zen kargudun abertzalea, baina, gure ustez, bere proposamena mugimendu abertzalearen testuinguruan sartzen da. *Euzkadi* egunkarian, garaipe jeltzalea balitz bezala agertu zen (Elorrio: «Erabagi eder bat», in *Euzkadi*, 1918ko azaroaren 26a).

<sup>82</sup> Elorrioko ikastolari buruz: Roman Berriozabal Azpitarte: *Ibidem*, 152-153, 183-187, 198., 216, eta 220-221. or. Gainera, aipagarriak dira Gregorio Arrienen lanak (aurrerago jaso dugun *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia: escuela y autonomía. 1898-1936* eta *La generación del exilio: génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares. 1932-1940*, Onura, Bilbo, 1983). Are gehiago, Gregorio Arrienek gerraurreko Elorrioko ikastola lan monografiko batean aztertu nahi du; hala agertu zen *Deia* egunkarian 2011ko urriaren 30ean, «Recuperando parte de la historia»; dena dela, une honetan, egileak lan hori aurrerago egiteko utzi du. Lan horretarako, Gregorio Arrienek Cristina Gallastegi Gorroño eskolako irakasle elorriarraren bultzada izan zuen.



plakak<sup>83</sup>, euskarazko parte-hartzeak mitin eta bilera politikoe-tan<sup>84</sup>, Kepa Egidazu herriko bertsolaria<sup>85</sup>... edo giro horren beste adierazpen batzuk, udal mailakoak: pilotalekuaren euskarazko inskripzioa («1933'gañen urtean iragi zan»), 1934. urteko jaietako egitarau elebiduna<sup>86</sup> («Eloño'ko Jai Nagusijak. Eloño'ko Udalak, etiko Jakintza-Zale ta Kirol-zale diran bazkun gustijakin batera eratu dauzan jai etikoyak / Programa de Festejos organizados por el Ilustre Ayuntamiento de la Villa de Elorrio en colaboración con todas las Sociedades Culturales y Deportivas»; bertan Elorrioko historiari buruzko artikulua bat eta jaietako egitaraua datoz)...

## 4. Frankismoa. Epilogo

### 4.1 Sasoi latzak

Gerraosteko diktadurarekin euskararen egoerak txarrera egin zuen nabarmen Elorrion. Arrazoi politiko eta sozialak di-rela bide, euskararen presentzia ahuldu egin zen Elorrion. Urteak igaro ahala, gure hizkuntzaren kontrako presioa gutxitu zen, aurrerago azalduko dugun moduan.

#### a) Eskola

Hezkuntza arloari dagokionez, Jose Antonio Ardanazaren (1985etik 1999ra Eusko Jaurlaritzako lehendakari izana) le-kukotza emango dugu, adibide modura. 1941. urtean jaiotako elorriarrak hau dio frankismo garaiko eskola giroaz:

<sup>83</sup> Roman Berriozabal Azpitarte, *Ibidem*, 40-42. or. eta 45. orrialdeko argazkia.

<sup>84</sup> Herriko mitinez gain, nabarmentzekoa da Elorrioko alkateak euskaraz hitz egin zuela euskal autonomiaren alde egindako Bizkaiko Udalerrien Biltzarrean, 1918ko abenduaren 15ean (Roman Berriozabal Azpitarte, *Ibidem*, 65. or.), eta Alejandro Gallastegi Berrio-Lopek (1894-1951) ehunka mitin egin zituela euskaraz (Roman Berriozabal Azpitarte, *Ibidem*, 54. or.).

<sup>85</sup> Roman Berriozabal Azpitarte, *Ibidem*, 39. or.

<sup>86</sup> Labayru Ikastegiaren liburutegian ikusgai.

*Ikastetxean gaztelaniaz baino ez zen hitz egin, euskara debekatuta zegoen, eta erabiltzen zutenei zigor handiak ematen zizkieten. Ni elebiduna nintzen. Ondarroan egin nuen egonaldian, osaba-izeben etxean, gaztelaniaz hitz egiten ikasi nuen, eta moldatzen nintzen; baina baziren gai ez ziren ikaskide baserritarrak, eta haiei zigor fisikoak ezartzen zizkieten. Zigorrik erabiliena makila edo zumea hartu, eta esku-aburetan edo behatz-mamietan jotzea izaten zen. Hura bai mina!»<sup>87</sup>. Beraz, euskara baztertu ez ezik, zigortu ere egiten zuten.*

#### b) Gizarte aldaketak

Garai hartako beste datu garrantzitsu bat immigrazioarena da, izan ere, urte horietan kanpotik etorritako lagun asko Eorriion errotu ziren. Berriz ere, Ardanzaren berbak jasoko ditugu: «1950eko hamarkadak immigrazioaren nobedadea ekarri zuen. (...) Immigrazioak ekarri zituen beharginak; eta hogeitau urte igarotzerako, garai batean hiru mila biztanle izandako herrian, biztanleria bikoiztu, eta sei mila herritar ziren Eorriion. (...) Etorri berriek gaztelania baino ez zuten egiten, ez zekiten hitzik ere euskaraz»<sup>88</sup>.

#### c) Eliza

Kasu honetan, guk jasotako lekukotza erabiliko dugu: «*elixan dana euskeras, elixan trentaisieterarte, Francon soldauok sartu arte elixan dana eitten san euskeras, bai dotriña, bai nobenak, bai sermoiak, mesak latin orduan jakiña, baña bestelan dan-dan-dana eitten san euskeras. Da Francon tropak sartu sienien ya urrengoko egunian berba bat etzan*

<sup>87</sup> Jose Antonio Ardanza Garro: *Euskadi Bibotzean. Oroitzapenak*, Destino-Txertoa, Donostia, 2011, 42-43. or. (erdarazko bertsioa badu, *Pasión por Euskadi. Memoria* izenburupean). Lekukotasun gehiago hemen: Amaia Nicholson eta Leire Goitisolo: *Elorrioko historia emakumeen abotik: atzoko hitzak josten*, Elorrioko Udala, Elorrio, 2011, 81. or.

<sup>88</sup> Jose Antonio Ardanza Garro: *Ibidem*, 43-44. or.

*eitten euskeras, dana erderas, etorri san ona ser bat, parroko frankista bat etorri san ona, da amen euskeras bape etzan eitten»* (Jose Kortazar).

#### **4.2 Euskarazko idazleak**

Diktaduraren urte gogorrenak pasatu ondoren, elorriar batzuek euskarazko argitalpenak plazaratu zituzten, hain zuzen ere, Klaudio Gallastegik, Jaime Kerexetak eta Sabin Alonsok. Bizkaieraz idatzi zuten. Hiruren nortasuna eta egitekoa oso desberdina zen. Bakoitzari lerro gutxi batzuk eskainiko dizkiogu.

##### a) *Klaudio Gallastegi Zenarruzabeitia*<sup>89</sup> (1906-1988)

Apaiz hau oso ezagun egin zen Euskal Herri osoan, berrogei urtez Bilboko San Anton elizako parrokoa izan baitzen. Jarduera asko gauzatu zituen eta horietako batzuen bidez euskara irmo defendatu.

Frankismo garaian, Bilbon mezak euskaraz eman zituen lehen elizgizona izan zen, eta euskara zabaltzeko zenbait ekimenetan parte hartu zuen –besteak beste, euskal liburuak argitaratzea eta *Kili Kili* haurrak alfabetatzeko proiektua–, giroa batere aproposa izan ez arren. Gainera, zenbait liburu argitaratu zituen euskaraz, hala nola *Galburutan* (1968) eta *Amets eta Egi* (1973). Azken datu bat ematearren, *Begoñako Andra Mari*, *Bizkaiko Zaindari* kantaren letra berak idatzi zuen. Klaudiorekin lotura gehien izan zuten bi herriek, Elorriok eta Bilbok, kale bana eskaini zioten.

<sup>89</sup> Klaudioren euskararen aldeko lana artikulu honetan irakur daiteke: Luis Baraiazarra Txertudi: «Don Claudio, Bilboko euskaldunen bihotza», in *Karmel*, 2006-4, 40-61 or. Haren omenezko artikulua Roman Berriozabal elorriarraren eskutik *Anboto* aldizkarian: «On Kauldi Gallastegi gogoan». Beste erreferentzia bat: Anastasio de Olabarria: *Don Claudio, el cura de San Antón*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 2001.

b) *Jaime Kerexeta Gallastegi*<sup>90</sup> (1918-1998)

Apaiz honen ibilbidea oso bestelakoa izan zen. Klaudio ekintza gizona zen; Jaime, aldiz, gizon lasaia zen, eta Elorrioren geratu nahi izan zuen euskararen inguruko azterlanak egiteko (bere hitzetan: «parrokiako lanetarako baino abilagoa nauzu euskal gaiak ikertzeko eta idazteko»). Gainera, musikazale handia izan zen, eta heraldista ospetsua.

Euskararen esparruan egin zuen lanik ezagunena erlijio liburuak euskarara itzultzea izan zen. Zerrenda oso luzea da. Gainera, helburu hau ezarri zion bere buruari: Bibliaren bizkaierazko lehen bertsioa argitaratzea. Erlijiozkoak ez ziren liburuak ere itzuli zituen, eta berak idatzitako poemak ere argitaratu zituen. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1964an, eta ohorezko euskaltzain hil baino apur bat lehenago. 2001eko ekainaren 2an Elorrioko Udalak omenaldi bat eskaini zion.

c) *Sabin Alonso Ariño* (1915-1998)

Sabin Alonso euskal idazle laikoa izan zen. Euskal literaturaren historiari buruzko lanen arabera, garai hartako euskarazko aldizkarietan idatzi zuen eta ipuinez gain, antzezlan bat ere idatzi zuen euskaraz. Antzezlan hori idazlearen jaioterrian eta beste herri batzuetan antzeztu zuten zenbait aldiz. Hala ere, Elorriorentzat funtsezkoa izan zen herrian bertan egindako lana. Izan ere, Sabin Alonso benetako kultura-eragilea izan zen, eta literatura eta musika arloan egindako jarduerengatik nabarmendu zen.

Euskarari dagokionez, Sabineek euskarari tartetxo bat egin zion *Arguiñeta* herriko aldizkarian<sup>91</sup>. Bertan artikulua ugari ar-

<sup>90</sup> Jaime Kerexetari buruz badago liburutxo bat Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* izeneko bilduman; Mikel Atxaga: *Jaime Kerexeta (1918-1998)*, Bidegileak bilduma, 22. zk., Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2001.

<sup>91</sup> Aldizkariaren bilduma osoa Elorrioko Udal Liburutegian kontsultagai dago. Lehen zenbakia 1965eko abenduan irten zen. Euskarazko lehen tes-

gitaratu zituen euskaraz. Kronikak eta mota askotako kontakizunak idazteaz gain, euskararen erabileraren aurrean kezkatuta agertu zen behin baino gehiagotan. Laburbilduz, *Arguiñeta* aldizkariko artikulua Elorrioko idatzizko euskararentzat aterpe txiki bat izan ziren frankismo sasoiaren.

### 4.3 *Frankismo garaiko azken urteak. Epilogo*

Aurretik esan bezala, urteek aurrera egin ahala, frankismoak euskarari egindako presioa arindu egin zen. Hori maila askotan ikusi ahal izan zen. Hainbat urtez euskarazko ezer gitaratu gabe egon ondoren, liburu batzuek argia ikusi zuten, aurreko atalean adierazi dugun moduan. Gainera, euskara berriro ere erabili zen erlijio munduan<sup>92</sup>, eta amaitzeko, berriz ere hezkuntza arloan sartu zen. Horri dagokionez, obra orokorretara joko dugu, hala nola Gregorio Arrienen «*Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972*»<sup>93</sup> artikulura, edo obra zehatza-goetara, esaterako Bidegileak bilduman Jesus Atxari eta Josune Munitxari eskainitakoetara<sup>94</sup>.

tua, berriz, 1967ko urtarrilari dagokion 17. zenbakian. 12. zenbakian Sabin Alonsori egindako elkarrizketa dator, Gernikako euskarazko ipuinen lehiaketa irabazi zuen eta.

<sup>92</sup> Parrokiako artxibategian, 1941ean «pláticas en vascuence y castellano» aipatuta agertzen dira (*Fundación de sermones y misiones* izeneko liburua, 36. or.). Frankismoaren bukaeran euskara elizan sartzeari buruz, ikusi Angel M<sup>a</sup> Unzueta: *Vaticano II e Iglesia local*, Instituto Diocesano de Teología y Pastoral. Editorial Descleé de Brouwer, Bilbo, 1994.

<sup>93</sup> Gregorio Arrien Berrojaechevarria: «Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972: sus orígenes y organización», in *Ikastaria. Cuadernos de Sección. Educación*, 6. zk., 1993, 15-289. or.

<sup>94</sup> Beñat Gaztelu-Urrutia: *Josune Munitxa (1947-2002)*, Bidegileak bilduma, 43. zk., Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2006; Imanol Murua Uria: *Jesus Atxa Agirre (1920-2007)*, Bidegileak bilduma, 52. zk., Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2008; Jesus Atxari dagokionez, ohartxo bat: Igor Basterretxeak jakinarazi digunez, 1956. urteko herriko jaietako egitarauan agertu zen euskarazko testua –*Udala-aspian* izeneko olerkia– berea da (testua hemen ere ikusgai: Igor Basterretxea Kerexeta: *Recopilación de artículos históricos sobre Elorrio. Programas de fiestas (1934-2004)*, Gráficas Lizaso, Zornotza, 2005).

Epilogo moduan, diktadura amaitu eta gaur egungo sistema politikoa ezarri zen garaira helduko gara. Sistema horretan, euskarak hizkuntza ofizialaren kategoria lortu zuen. Horri esker, erakunde publikoetan normaltasunez erabiltzeko aukera izan da, baita hezkuntzan eta gizartean ere. Hala ere, azken urteotako historia ez dugu jorratuko lantxo honetan.